

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# 2022-2023 IKASTURTEKO KUDEAKETA TXOSTENA ARABAKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDETZA





## Aurkibidea

1. Azpiegiturak eta baliabideak .....	3
2. Garapen akademikoa eta ikerketa-garapena .....	6
3. Esperientzia Gelak.....	10
4. Euskara, ikasleak eta mugikortasuna.....	14
5. Ekintzailtza eta laneratzea .....	17
6. Kultura eta kirola .....	20

---

## 1. Azpiegiturak eta baliabideak

---

### **1.1 Eraikinen eta instalazioen azpiegitura-plana garatzea, ezarritako lehentasunak eta diru-baliabideak kontuan. Erabiltzaileen segurtasuna, irisgarritasuna eta hobekuntza energetikora bideraturiko neurriak sustatuko dira.**

Azpiegiturak Hobetzeko Urte Anitzeko Plan Berezia idatzi da. Plan horrek 2023-2026 aldian energia-eraginkortasuna, segurtasuna, irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko garatuko diren jarduerak jasotzen ditu.

Plan hori garatzeko, Lascaray Ikergunearen estalkia birgaitzeko obrak esleitu dira. Bertan, egungo estalkia osatzen duten elementu guztiak desmuntatzea, hustubide guztiak berritzea eta, horien artean, drainatze-hodiak jartzea aurreikusten da, xafla geotestilez bazkatuta, ura errazago husteko. Era berean, beheko solairuko kolektoreak berriz diseinatu dira, hustubide bakoitzari kolektore bat eta zorroten indibidual bat esleituz korridore bakoitzeko.

Ildo beretik, Farmazia Fakultateko kanpoko arotzeriak berritzeko proiektuaren idazketa esleitu da eta Hezkuntza eta Kirol Fakultatearen Kirol Ataleko estalkia birgaitzeko proiektuaren idazketa eta obra-zuzendaritza izapidetzen hasi da.

Halaber, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean (Kiroldegia) plaka fotovoltaikoak instalatzeko proiektua idatzi da.

Bestalde, 46/22 prozeduraren barruan, hainbat lan egin dira Hezkuntza eta Kirol Fakultatean (Egoitza eraikina), Ingeniaritza Eskolan, Farmazia Fakultatean, Elurreta ikasgelategian, Lascaray Ikergunean eta Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean. Jarduera horiek honako hauek hobetzera bideratuta egon dira:

- Ikasgeletako, irakaskuntza-laboregietako, bulegoetako eta beste gune batzuetako baldintza akustikoak eta konpartimentaziokoak.
- Argiztapen-instalazioak, ingurumena eta Eraikuntzaren Kode Teknikoak (EKT) eskatzen dituen argiteria-mailen baldintzak hobeto errespetatzen dituzten beste batzuk jarritz; larrialdietako luminarien egokitzapena,

argiztapenaren eta energia-eraginkortasunaren eta eraikinen ebakuazioko barne-ibilbideak erabiltzeko segurtasunaren baldintzak betetzen dituzten argi berriak instalatuz; eta eremu komunitario eta korridoretako argiztapena kontrolatzeko egokitzapena.

- Zenbait espaziotako klimatizazio- eta aireztapen-instalazioak, EKTk eta Eraikinetako Instalazio Termikoen Araudiak (EITA) eskatutako baldintzak betez, konfort termikoa eta airea berritzeko ekipamendua ordeztuz, ingurumen-eraginkortasun handiagoarekin.

Era berean, fabrikako obrak egiteko 52/22 prozeduraren bidez, Letren Fakultateko barruko klaustroko adreilu karabistazko fabrikako horma-atalak konpondu dira, Ingeniaritza Eskolako eraikineko salgaientzako sarbidea hobetu da, Farmazia Fakultateko Kimika Analitikoko Sailaren arloa eta 1A9 Informatika Gela birbanatu dira, eta zoladura berria jarri da Ekonomia eta Enpresa Fakultateko gela batean.

Irisgarritasuna hobetzeko, ate automatiko berria jarri da Letren Fakultateari atxikitako eraikineko sotoko sarbidean, Ingeniaritza Eskolako iparraldeko ate automatikoaren motorra aldatu da, eta campuseko eraikinetako sarrera nagusietan instalatutako atea berrikusteko eta mantentzeko lanak egin dira.

Igeltserotza-, zurgintza-, iturgintza- eta pintura-lanak egin dira, campuseko eraikinak behar bezala mantentzeko.

Atal honetan ere, azpimarratzekoa da hainbat neurri jarri direla abian 2022ko apirilean, energiaren erabilera eraginkorrerako eta unibertsitatearen energia-kontsumoa murrizteko jardunbide egokiak sustatzeko.

Hartutako neurriei esker, Arabako Campuseko urte bateko (2022ko apiriletik 2023ko martxora bitartekoa) gas naturalaren kontsumoa % 35,64 murriztea lortu da, eta energia elektrikoarena, % 27,45, beti ere 2019ko kontsumoekin alderatuta. Adierazi behar da energia-kontsumoaren murrizketa desberdina dela eraikinaren tipologiaren arabera, baina, nolahi ere, eskuragarri dauden zenbakiek adierazten dute energia-kontsumoaren murrizketa horiek handiak

izan direla eta hiru campusetako energia-gastua 2,8 M€ txikiagoa izan dela adierazitako neurriak ezarri izan ez balira egingo litzatekeena baino.

### **1.2 Suteak hautemateko sistemak eta alarmak hobetzea.**

Itzaltze-ekipoak ordezkatu dira hainbat ikastegitan, horien iraungitze-data kontuan. Era berean, Letren Fakultateko Suteen Aho Ekipatuak ordezkatu dira eta, iraungipenez, campuseko beste eraikin batzuetakoen mahukak aldatu dira, iraungitzear zeudenez.

### **1.3 Larrialdietako planak eguneratzea eta simulakroak antolatzea, zehaztutako egutegiari jarraituz.**

Letren Fakultateko eta fakultate horri erantsitako eraikineko, Elurretako ikasgelategiko eta Ekonomia eta Enpresa Fakultateko autobabes-planak eguneratu dira.

Aldian-aldian egiten den bezala, campuseko ikastegi eta eraikinetako larrialditaldeen egoera berrikusi da, izendapenak eguneratzeko.

Ebakuazio-simulazioei dagokienez, simulazio horiek campuseko eraikin guztietan egin dira.

### **1.4 Arauzko eta maiztasun jakin bateko ikuskatzeak egitea, eta neurri zuzentzaileak ezartzea, hala badagokio.**

Farmazia Fakultateko gas-bitrinak ikuskatu dira, baita Farmazia Fakultateko aire konprimatuko ekipoa eta campuseko hainbat igogailu ere (3 Ingeniaritzan, 1 Errektoreordetzan, 5 Elurretan, 2 Pabiloian, 1 Ekonomia eta Enpresan).

### **1.5 Garraio publiko eta garraio osasungarriaren erabilera sustatzea unibertsitateko kideen artean.**

Arabako Campusaren webgunean, mugikortasunari eta irisgarritasunari buruzko informazioa eguneratu da. Hartara, garraio mota jasangarriak erabiltzera bultzatu nahi ditugu unibertsitateko kide guztiak.

## **1.6 Arabako Campuseko Batzarraren arautegia aldatzea.**

Baliabide ez-materialei dagokienez, gure campuseko gobernu- eta ordezkaritza-organo kolegiatuaren arautegia aldatu da; izan ere, 2021eko azaroan klaustroak UPV/EHUko Estatutuak erreformatu zituen eta nahitaezkoa zen gure arautegia erreformara egokitzea. Halaber, aukeraz baliatu gara Campuseko Batzarraren funtzionamendu-arau jakin batzuk eguneratzeko, haren jarduna arinagoa eta eraginkorragoa izan dadin.

## **2. Garapen akademikoa eta ikerketa-garapena**

---

### **2.1. Ikastegiak bisitatzeko eta haiekin biltzeko programa bat garatzea, zuzendaritza-taldeei kudeaketa lanean laguntzeko.**

Ikasturtean zehar bilerak egin dira campuseko ikastegietako dekanok eta zuzendariekin. Uztailean, 2022-23 ikasturtearen amaierako bilera egin da.

### **2.2. Ikastegiei campusetako eskaintza akademikoa areagotzeko egindako ekimenak bultzatu eta babestea.**

Gasteizko Ingeniaritza Eskolak gradu bikoitz berri bat eskaini du 2022-23 ikasturtean: Ingeniaritza Mekanikoa + Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza.

### **2.3. Ikastegiko eta campuseko unibertsitate-enpresa ikasgelen sorrera babestea.**

Ikasturte honetan hiru unibertsitate-enpresa gela sortu dira (campuseko bi eta Ingeniaritza Eskolako bat):

- Enpresa txiki eta ertainentzako (ETE) berrikuntza-gela, Arabako Enpresen Elkartearekin (SEA) lankidetzan.
- AMVISA Uraren Gela, Gasteizko Udal Urak, S.A. enpresarekin lankidetzan.
- UPV/EHU-Osane Consulting S.L. Gela, Osane Consulting S.L. enpresarekin lankidetzan.

### **2.4. GJHen inguruan egindako ikerketak eta prestakuntza nabarmentzea.**

UPV/EHUren eta Vital Fundazioaren arteko ikerketa-proiektuetarako 2023ko deialdiaren baitan, Arabako campuseko ikerketa-taldeek aurkeztutako bost proiekturi diru-laguntza eman zaie.

## **2.5. Komunikazio zientifikoko programa babestea, zenbait egitura eta ekitaldiren bidez.**

Zientzia eta Gizarte Garapeneko eta Transferentziako Errektoreordetzarekin elkarlanean aritu gara Zientzia Astea 2022 antolatzeko. Araban, azaroaren 9tik 13ra egin da, BIBAT Museoan. Edizio honetan jarduera guztien presentzialtasunera itzuli da. Guztira 33 jarduera egin dira, eta 2.118 pertsonak parte hartu dute.

## **2.6. Irakasle eta ikertzaileen gaitasunak eta kualifikazioa hobetzeko jarduerak garatzea.**

Arabako campusean irakasle eta ikertzaileen eta graduondoko ikasleen beharrian espezifikokoak eta zeharkakoak bete daitezten bideratutako "Ikerketari Laguntzeko Mintegi Iraunkorra" izeneko deialdiaren esparruan, prestakuntza eskaini da IRIen gaitasunak hobetzera bideratuta.

2022-23 ikasturtean 6 ikastaro antolatu dira, online nahiz aurrez aurre, eta guztira 167 pertsonak hartu dute parte. Hona hemen ikastaroak:

- Artearen Historiari buruzko Jardunaldiak: Euskal Herriko Erdi Aroko eskultura bere Europako testuinguruan.
- Solasaldia: antzinarotik garaikidetasunera arteko elite hispanikoak.
- XXI. mendeko unibertsitateetan historiaren irakaskuntza/ikaskuntza birpentsatzeko begirada praktikoa eta teorikoa berriak.
- Joera historiografiko eta ikerketa-metodologia berriak. Ilustrazio diplomatikoa espekulazioaren Europan eta Espainian.
- Curriculum zientifikoa zabaltzea eta ebaluatzea: seiurtekoen deialdia.
- Datuen analisia R-rekin (Oinarrizko Maila).

## **2.7. Prestakuntza-eskaintzaren, programa osagarrien eta bestelako jardueren komunikazioa babestea.**

Campuseko ikastegiei eta UPV/EHUko errektoreordetzei laguntza eman zaie prestakuntza-eskaintza arautua (graduako eta graduondoko titulazio berriak) nahiz prestakuntza osagarria zabaltzeko, bai eta unibertsitate-komunitateari zuzendutako jarduera guztiak hedatzeko ere.

## **2.8. Unibertsitate aurreko ikasleei zuzendutako jarduerak antolatzea, gaitasun zientifiko-teknikoak gara ditzaten.**

Antolatzaileen artean erabaki da ez antolatzea AGORA Teknocamp udako campus teknologikoa. Jarduera hori Arabako Foru Aldundiarekin, Egibiderekkin, Ikaslan Arabarekin eta Innobasquerekin elkarlanean egin da azken urteotan. Horren trukean, Arabako Campuseko Errektoreordetzak orientazio-jardunaldi bat antolatu du, unibertsitate aurreko ikasleak STEM gaitasunekin loturiko lanbideetara hurbiltzen laguntzeko (ikus 4.9. atala).

## **2.9. UPV/EHUren Udako Ikastaroak Fundazioarekin batera, koordinatzea Arabako lurralde historikoan egiten diren ikastaroen antolaketa.**

Aurten, UPV/EHUren Udako Ikastaroen 42. edizioaren barruan, Arabako campusean zortzi ikastaro antolatzen lagundu da:

- XVI. Nazioarteko Psikohizkuntzalaritza Sinposioa. Maiatzaren 31tik ekainaren 2ra.
- Enpresa 4.0: Digitalizazioa eta Informazioaren Teknologiak Enpresa Lehiakortasunaren Iturri gisa. Ekainaren 13an eta 14an.
- Hiri hezitzailea: praktika hezkidetzailleak naturalizatutako espazioetan. Ekainaren 28an eta 29an (Vitoria-Gasteizko Udalak antolatua).
- Valentin de Foronda Gizarte Historiarako Institutuaren XIX. Sinposioa: "Liberalak eta Liberalismoa Espainian". Uztailaren 6an eta 7an.
- Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Zuzenbideari eta Nazioarteko Harremanei buruzko ikastaroak. Uztailaren 10etik 14ra.
- HIGA! 2023: Hizkuntza Gutxituetako Hiztun Gazteen 4. Topaketa. Uztailaren 17tik 21era.
- Gizarte-zerbitzuak, herritarrak eta partaidetza. Irailaren 7an eta 8an.



- Ondare dokumental artistikoa kudeatzeko estrategiak. Irailaren 28an eta 29an (Artium Museoak antolatua)

Gainera, Donostiako Miramar Jauregian udako ikastaroen irekiera-ekitaldian izan gara, bai eta campusean egindako ikastaroen inaugurazio-jardunaldietan ere.

**2.10. Lurralde Historikoko eta EAEko erakunde publikoekin, eragile sozioekonomikoekin eta erreferentziazko kanpo-erakundeekin (Eustat, Emakunde, Arartekoa, Osakidetza, etab.) harremanak estutzea eta lankidetzan aritzea, praktikak, GRAL, MAL, doktorego-tesiak eta abar egiteko lankidetzak-hitzarmenak formalizatzeko eta zerbitzuak kontratatzeko.**

UPV/EHUK bat egin du Robotekin elkartearekin (Robotika eta Automatizazioko Euskal Elkarte – Asociación Vasca de Robótica y Automatización), robotikaren eta automatizazioaren sektorearekin lotutako enpresen eta eragileen arteko konfiantzan eta kooperazioan oinarritutako ekosistema sortzeko helburuarekin.

Bestalde, 29 lankidetzak-hitzarmen onartu dira guztira hainbat erakunderekin, eta honako hauek nabarmendu behar dira:

- Vitoria-Gasteiz Araba Mobility Lab Fundazioarekin sinatutakoa, Mobility Lab-campus aliantza sortzeko eta Lurralde berdea eta iraunkorra proiektua garatzeko. 2023-2025 urteetarako milioi bat euro inguruko zuzkidurarekin.
- Arabako Foru Aldundiarekin eta Gasteizko Udalarekin sinatutakoa, Enplegu Foroa (Empleo Gune 2023) antolatzeko.
- Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzak Arabako Foru Aldundiarekin sinatutakoa, Arabako Campusean garapenerako lankidetzak sustatzeko.
- Vitoria-Gasteizko Udalarekin sinatutako sei akordio, honako helburu hauekin: ekintzailatza bultzatzea, irakaskuntza eta kirola sustatzea, baratze ekologikoko jarduerak antolatzea, 1428-1520 aldiko Gasteizko udal-aktak aztertzea, kultura-paisaien eta ondarearen arloko ikerketa, farmakutsaduraren arloko ikerketa.

- Vital Fundazioarekin sinatutakoa, hainbat helbururekin, hala nola ekintzailletza bultzatzea, ikerketa garatzea, kultura- eta kirol-jarduerak antolatzea eta adinekoentzako irakaskuntza garatzea.
- BIC Arabarekin sinatutakoa, ekintzailletza sustatzeko INIZIA Araba Campus programa garatzeko helburuarekin.
- Innobasquerekin sinatutakoa *FIRST* LEGO League txapelketa Gasteizen antolatzeko.

Gasteizko Udaleko Industria Mahaiak antolatutako saioetan parte hartu dugu, Arabako Campusaren ikuspegia txertatzeko eta balizko lankidetzak bideak aztertzeko.

### 3. Esperientzia Gelak

---

#### **3.1. Giza Zientzien titulazioaren irakaskuntza antolatzea.**

Giza Zientzien Unibertsitate titulua antolatu da, lau urteko iraupena duena, enborreko 18 irakasgarekin eta hautazko 20 irakasgarekin.

#### **3.2. Adinekoentzako Unibertsitate Ikastaroak (AUI) eta Ikastaro Osagarriak planifikatu eta garatzea; besteak beste, graduiko irakasgaiak eskaintzea, belaunaldien arteko harremanak sustatzeko.**

AUI ikastaroak egin dira, tituluarekin partekatzen diren hautazko irakasgaiekin eta graduen irakaskuntza arautuko ikasketa-planen baitan dauden hainbat irakasgarekin. Arabako campuseko ikastegiekin lankidetzan, 15 gradutako eskaintza arautuko 53 irakasgai eskaini dira guztira, lehenengo aldiz, fakultate guztietako eskaintza arautuko irakasgaiak izan dituenak. Bestalde, zazpi ikastaro osagarri eskaini dira, irakasle espezializatuek emanda.

#### **3.3. Esperientzia Geletako ikasleentzat interesgarriak izan daitezkeen arlo akademikoaz kanpoko jarduerak antolatzea.**

Ikasturte hasiera dela eta, 1. mailako ikasleentzako harrera-jardunaldia antolatu da irailaren 22an. Bertan, titulazioari buruzko informazioa jaso dute, eta UPV/EHUren webgunearen eta beste tresna digital batzuen (GAUR, Egela)

erabilerari buruzko prestakuntza-saio bat egin dute. Era berean, Ikasturtearen Inaugurazio Ekitaldia egin da (irailak 26). Bertan zenbait agintari bertaratu dira eta Alberto Santana historialari eta dibulgatzaileak “Una breve historia de la Sexualidad en Vasconia” inaugurazio-hitzaldia eman du.

Esperientzia Gelak zabaltzeko eta komunikatzeko ekintzak egin dira, bereziki matrikulazioa sustatzeko eta proiektuaren ikusgarritasuna sustatzeko: hainbat elkarrizketa egin dira irrastian (Radio Vitoria, Onda Vasca), proiektuari buruzko aipamenak (EuropaPress, Senior Class eta El Correo) eta erreportajeak prentsa idatzian (Agencia EFE, Diario de Noticias de Álava), eta iragarki bat argitaratu da El Correo de Álava egunkarian. UPV/EHUko komunikazio-bulegoarekin lankidetzan, Esperientzia Gelen irudi korporatiboa eguneratzen jarraitu da, webgune berriaren eraldatzea barne.

Hainbat jarduera osagarri egin dira irakasgaien programak osatzeko eta testuinguruan kokatzeko (hitzaldiak, museoetara bisitak, kultura-ibilbideak, irakurketa antzeztuak, etab.). Ekintza horiek guztiek zabaldu egin dute Esperientzia Geletan eskainitako prestakuntza, eta motibazio erantsia eman diete ikasleei.

Arabako Esperientzia Gelen IX. Jardunaldiak antolatu dira “Arte y discurso a finales del franquismo: miradas vascas / Frankismo amaierako artea eta diskurtsoa: euskal begiradak” izenburupean. Urtean behin antolatzen diren jardunaldi hauek urtarrilaren 25ean eta 26an izan dira, 16:00etatik 19:00etara, Vital Fundazioan (A aretoa – Dendaraba) eta Letren Fakultateko Areto Nagusian, hurrenez hurren. Jardunaldi hauetan aztergai izan ditugu euren obra frankismo amaieran eta trantsizioko urteetan plazaratu zuten euskal sortzaile nagusietako zenbait. Antolatutako 3 hitzaldiek eta hitzaldi-kontzertuak hainbat diziplinako artisten lana aurkeztu digute (literatura, artea, musika): lan artistiko horiek garai hartako errealitate konplexuari eta irakiten ari zen gizarteari zuzendutako askotariko begirada erakutsiz.

Arabako Esperientzia Gelen graduazio-ekitaldia —Giza Zientzietako tituludunen XIX. promozioa— antolatu da. Ikasturte-amaierako hitzaldia Daniel Innerarity

Humanitateen Ikerketa Sari Nazionalak eman zuen “La sociedad de las crisis” izenburupean.

#### **3.4. *Esperientzia Geletako Ikasleen eta Ikasle Ohien Kultur Elkarteari (ACAEXA-AEIKE) jarduerak antolatzen laguntzea.***

Lankidetzan estuko harremana sustatu da ACAEXA-AEIKE elkartearekin, eta BEGIRADAK izeneko hitzaldi-zikloa antolatu da haiekin batera. Hilean behin antolatu diren hitzaldi hauek, unibertsitate-komunitate osoari eta herritarrei irekiak, Letren Fakultateko Areto Nagusian egin dira; guztira, 6 hitzaldi antolatu dira eta 600 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute.

#### **3.5. *Lankidetzan jardutea Adinekoentzako Unibertsitate Programen Estatuko Elkartearekin (AEPUM).***

2022ko irailaren 28an Madrilen egindako batzarrean, UPV/EHUko Esperientzia Gelak Adinekoentzako Unibertsitate Programen Estatuko Elkarte (AEPUM) bazkide izatea behin betiko onartu da. 2002-23 ikasturtean, Arabako Esperientzia Geletako zuzendaritzak “Adinekoentzako Unibertsitate Programen Estatuko XVII. Topaketan” (2022ko irailaren 26-28. UNED-AEPUM) eta AEPUMeko XII. Lan Mintegian (2023ko maiatzaren 25-26. UMU-AEPUM) parte hartu du. Elkarte honetan parte hartu ahal izatea aukera estrategikoa da Esperientzia Gelen proiektua estatu mailan garatzeko.

#### **3.6. *Ikasleek egindako La voz de la experiencia/Esperientziaren Ahotsa seihilabetekaria prestatu eta zabaltzea.***

*Esperientziaren Ahotsa* seihilabetekariaren 39. eta 40. zenbakiak argitaratu dira, eta EAEko hainbat erakundetara zabaltzeko.

#### **3.7. *Lankidetzan aritzea UPV/EHUko sail eta ikastegiekin, eta beste erakunde eta elkarte batzuekin, unibertsitateko gainerako ikasleentzat eta/edo hiritarrek parte hartzeko moduko jarduerak antolatzeko eta eskaintzeko.***

Esperientzia Geletako irakaskuntzan esku hartzen duten sailekin lankidetzan, prestakuntza-jarduera ugari egin dira irakasgaien programak osatzeko eta

testuinguruan kokatzeko (6 hitzaldi gonbidatu, 8 bisita museoetara, 2 kultura-ibilbide, 2 irakurketa antzestu, etab.).

ABAoren prestakuntza-programarekin lankidetzan jarraitu da, eta 22/23 denboraldiko 5 operatara bertaratzea antolatu da. Emanaldi guztien aurretik, operaren testuinguruari buruzko hitzaldi bat izan da beti, Esperientzia Geletako irakasleek emana.

Lankidetzan jardun da UPV/EHUko Artearen eta Musikaren Historia Sailarekin, Arabarrak Arte Erromanikoarekin Elkartearekin, Kalearte Kultur Elkartearekin eta Gasteizko Teologia Fakultatearekin, "Arabako Arte Erromanikoari buruzko VI. Jardunaldiak - Cómo construir un templo románico" izenekoak antolatzeko. Jardunaldiak sei hitzaldiren inguruan egituratu dira. Hitzaldi horiek urtarrilaren 25ean, otsailaren 15ean, martxoaren 22an, apirilaren 19an eta maiatzaren 10ean egin dira, Letren Fakultateko Areto Nagusian.

### **3.8. Elkarrekiko informazio-harremanak sortzea Arabako Foru Aldundiaren +55 ikasgeletako, Vital Fundazioko (+55 jarduerak) eta Vitoria-Gasteizko Udalaren BIZAN sareko (adinakoentzako zentro soziokulturalak) jarduera eskaintzaren inguruan.**

Esperientzia Gelen jardueren berri eman da Gasteizko BIZAN sarean, Vital Fundazioan eta Arabako Foru Aldundiaren +55 geletan. Gainera, erakunde horiek antolatzen dituzten jardueren berri eman zaie Esperientzia Geletako ikasleei.

Halaber, zuzendaritza honek parte hartu du, BIZANekin lankidetzan, "Digitalización y personas mayores diversas en Vitoria-Gasteiz: realidades, recursos y retos ¿dónde poner el foco? lan-topaketan; guztira bederatzireakundek hartu dute parte.

### **3.9. Hiru campusetako Esperientzia Geletako proiektuaren orainari eta etorkizunari buruz hausnartzea, modu koordinatuan.**

UPV/EHUko hiru campusetako Esperientzia Geletako zuzendaritzek, Graduondoko eta Etengabeko Prestakuntzako Errektoreordetzarekin batera,

ikasturtean zehar zenbait bilera egin dituzte UPV/EHUko programaren etorkizuneko estrategiei eta prestakuntza-eskaintzari buruz.

## **4. Euskara, ikasleak eta mugikortasuna**

---

### **4.1. Arabako campusean Euskararen III. Plan Gidaria (2018-2022) ebaluatzea eta IV. Planaren definizioan laguntzea.**

Euskararen Plan Gidariaren ardatzetako ekimenak gauzatu dira, bereziki, euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketari dagozkionak (4.2. atalean). Halaber, Arabako Campuseko Euskara Batzordeak Soziolinguistikako Klusterrak aurkeztutako "UPV/EHUko fakultateetako esparru ez formaletan hizkuntzen erabilera" txostenaren balorazioa egin du.

Halaber, IV. Euskara Planaren definiziora bideratuta dagoen Batzorde Eragilean parte hartu da.

### **4.2. Unibertsitateko bizitzaren esparru guztietan euskararen erabilera areagotzeko jarduerak sustatzea.**

- "Aktibatu" deialdia kudeatzen lagundu da, unibertsitate-komunitateko kideen euskararen erabileraren aldeko ekimena sustatzea helburu duena. Arabako campuseko ikastegiaren 6 proposamen aurkeztu eta onartu dira.
- 2022ko Euskaraldia Arabako campusean koordinatzen lagundu da.
- 2022ko Euskararen Astea antolatu da, campuseko ikastegietan sortutako ekimenak koordinatuz eta Arabako Campuseko Errektoreordetzaren eskutik ekintza espezifikoak antolatuz: bertso-saioa eta euskal produktuen dastaketa gidatua. Ekimenotan 50 pertsona egon dira guztira.
- "Euskara eta Kirola" programa antolatu da Hezkuntza eta Kirol Fakultatean, Arabako Foru Aldundiarekin koordinatuta. Programa horren bidez, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikasleak hezkuntza-testuinguru ez formaletan euskara erabiltzearen alde sentibilizatzea bultzatu da. Guztira 100 ikasle inguruk parte hartu du, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako, Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako graduetako sei taldetan banatuta.

- Lazarraga Kultur Elkartearekin lankidetzan euskal kultura sustatzeko jarduerak ez dira programatu, elkartean egon diren aldaketak direla eta.

#### **4.3. Eztabaida eta zabalkunderako foroak bultzatzea, bai eta euskara tekniko-zientifikoa sustatzeko jarduerak ere.**

- Henrike Knörr sarien deialdia kudeatu da, Arabako Foru Aldundiarekin koordinatuta. 2022ko deialdira hiru hautagai aurkeztu dira eta bi onenei 2.000 euroko sari bana eman zaie: Letren Fakultateko master bateko MALari lotutako proiektu bati eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko irakasle batek aurkeztutako ikerketa proiektu bati.
- Irakasle eta ikertzaileen hizkuntza-prestakuntzako ikastaroen deialdia zabaldu da.

#### **4.4. Arabako campuseko ikastegiei laguntza eskaintzea BIKAIN euskararen kalitate-ziurtagiria eska dezaten.**

Bi ikastegik eskaera egiteko asmoa adierazi dute eta beste batzuk autodiagnostikoa egiten hasiko dira.

#### **4.5. Campuseko unibertsitateko hideoi laguntza ematea atzerriko hizkuntzak ikasteko.**

Ingeleseko 8 ikastaro eskaini dira guztira, eta bakoitzean izen-ematea 8 pertsona ingurukoa izan da (azkenean 56 lagunek hartu dute parte guztira):

- Lehen lauhilekoan ingelesa garatzeko bi aurrez aurreko ikastaro eskaini dira ("A guide into academic papers" eta "Working with foreigners") eta bi ikastaro formatu bimodalean ("Congress and conference presentations prep" eta "An advanced Congress and conference presentations prep").
- Bigarren lauhilekoan lau ikastaro bimodal egin dira: "Writing for impact", "Speaking and presentations", "Prepare to travel. Prepare to Erasmus" eta "Ready for Toptulte".

Testu zientifikoak berrikusteko tutoretza-zerbitzua ikasturte osoan egon da aktibo, eta eskaera gero eta handiagoa izan da. Ikasturte honetan 19 testu berrikusi dira guztira: 7 lehen lauhilekoan eta 12 bigarrean. Testu guztiak

banakako tutoretza-saio online bidez berrikusi dira, eta lanen bat argitaratu da dagoeneko.

#### **4.6. *Campuseko Ikasleen Ordezkarien II. Topaketa antolatzea.***

Topaketak helburu du Arabako Campuseko Errektoreordetzak eskainitako jarduera-eskaintza ezagutaraztea. Saiora 32 ikasle bertaratu dira.

#### **4.7. *Lansarean topaketa antolatzea, Bai Euskarari elkartearekin elkarlanean.***

Ikasleei zuzendutako saio honetan lan-mundura sartzeko aukerei buruz hitz egin da; bereziki, euskarak duen presentzia eta balio gehigarriaren inguruan eztabaidatu da. Saioa aurrez aurre zein streaming bidez jarraitzeko aukera egon da, eta, guztira, 25 lagunek aukera baliatu dute.

#### **4.8. *Expouniversitas orientazio-azokan parte hartzea, Miranda de Ebroko Sagrados Corazones ikastegiak antolatuta.***

Otsailaren 16an, Arabako Campuseko Errektoreordetzako Zuzendaritzako kide bat, campuseko zenbait fakultatetako ordezkariekin batera, Miranda de Ebroa (Burgos) joan da, campuseko irakaskuntza-eskaintzaren berri ematera. Orientazio-azoka honetara 250 pertsona inguru hurbildu dira informazio bila.

#### **4.9. *“STEAM SARE: gazteentzako lanbide orientazioko topaketa” jardunaldia antolatzea, Innobasquerekin elkarlanean.***

Jardunaldiaren helburua da unibertsitate aurreko ikasleak STEM gaitasunekin lotura duten lanbideetara hurbiltzen laguntzea eta unibertsitateko hainbat gune ezagutzeko aukera izatea. Jardunaldian STEM arloetako 20 profesionalak, campuseko 13 irakaslek eta bigarren hezkuntzako 92 ikaslek parte hartu dute; ikasleok, aipaturiko profesionalak ezagutzeaz gain, unibertsitateko zenbait gune bisitatu dituzte: Lascaray eta Micaela Portilla Ikerguneetako eta Farmazia Fakultateko laborategi batzuk, campuseko Baratze Ekologikoa, Ingeniaritzako STEAM arte-proiektuen kokagunea eta Formula eta Moto Student-eko tailerrak.

#### **4.10. *“Unikoak Araba 2023” kultur jarduerak antolatzeko ideia-lehiaketarako deialdia argitaratzea.***



Arabako Campuseko ikasleen proposamenak jaso nahi izan dira, euskara eta euskal kultura bultzatzeko ekimenak antolatzea bilatzen dutenak. Deialdira ez da eskaerarik aurkeztu.

#### **4.11. Europako Mugikortasunaren Astean parte hartzea, campusean ekimenak antolatuz.**

Iraunkortasunaren Zuzendaritzarekin elkarlanean, bizikletak konpontzeko tailerra, bizikleta-ibilbide gidatua eta auto eta motozikleta elektrikoek erakusketa antolatu dira. Jarduera hauetan 75 pertsona inguruk parte hartu dute.

## **5. Ekintzailtza eta laneratzea**

---

### **5.1. INIZIA Araba Campus programa garatzea Arabako Enpresa eta Berrikuntza Zentroarekin (BIC Araba) lanikidetzan, Arabako campusean ekintzailtza eta oinarri teknologikoko INIZIA enpresa-haztegia bultzatzeko.**

Kultura ekintzailearen hedapenaren esparruan, Arabako campuseko INIZIA programa garatzeko hainbat jarduera egin dira, eta 430 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute.

INIZIA Araba Campusek webgunea ([www.inizia.eus](http://www.inizia.eus)) eta marka-irudia estreinatu ditu 2022-23 ikasturte honetan, irudia berritzeko eta gaur egungo ekintzailtza-programak adierazten duenera egokitzeko asmoarekin. Horrela, ekiteko eta hasteko ekintzak irudikatu nahi ditu, modu dinamikoan, mugimenduarekin eta identitate teknologikoa galdu gabe. Irudi hurbila, elkarlanekoa eta egungoa da, eta INIZIA Araba Campusek campuseko ekintzailtza-programa gisa bidean laguntzen dituen proiektu ekintzaileei ematen dien jautzia eta bultzada irudikatzen duten sinboloak erantsi dira.

*5.1.1 Inizia Ekin tailerra eta prestakuntza-jardunaldiak antolatzea ekintzailtza- eta enpresak sortzearen arloan, Arabako campuseko ikasleen eta irakasle eta ikertzaileen artean kultura ekintzailea sustatzeko.*

Inizia Ekin ekintzailtza sustatzeko tailerra eta ekintzailtzarekin lotutako gaitasunei buruzko 5 prestakuntza-jardunaldi antolatu dira. Prestakuntza horietan, campuseko unibertsitate-komunitateko 68 pertsonak hartu dute parte.

Arabako campuseko enpresa-mintegiko ekintzaileei laguntza eta aholkularitza eman zaie. Horretarako ezarritako batzordeak mintegian orain arte kokaturiko lau enpresen jarraipena egin du. Guztiek jaso dute beren jarduerari buruzko aldeko txostena. Era berean, bi eskaera berri ebaluatu dira, eta horiek ere modu positiboan ebatzi dira.

UPV/EHUren gazte-ekintzailtzako beken antolaketan eta kudeaketan parte hartu da. Programa honen bidez, 25 beka eman dira guztira (horietako bat Arabako campusean), azken hiru ikasturteetan (2019-20, 2020-21 edo 2021-22) unibertsitate-titulu ofiziala lortu duten pertsonen edo 2022-23 ikasturtean UPV/EHU gradu edo masterreko azken ikasturtean matrikulatuta egon direnen garatutako ideia edo enpresa-proiektuei laguntzeko.

#### *5.1.2 Arabako campuseko ikastegietan "Ikasgeletan ekitea" programa garatzea, ikasleen artean ekintzailtzarako bokazioa sustatzeko.*

Gasteizko Ingeniaritza Eskolan eta Ekonomia eta Enpresa Fakultatean "Ikasgeletan Ekiten" proiektua garatu da, ikastegi horietako irakasleekin lankidetzan. Zortzi taldetako 284 ikaslek hartu dute parte.

#### *5.1.3 Enpresa-ekimenen garapena bultzatzeko INIZIA sariak antolatzea.*

Arabako campuseko unibertsitate-komunitateari zuzendutako INIZIA 2023 sariak deitu dira. Alde batetik, "Ideia Berritzaileak" kategoria saritu da, enpresa-ekimen berritzaile edo oinarri zientifiko eta teknologikoko enpresa berritzaile bihurtzeko aukera gehien dituzten ekintzailtza-proiektuak saritzeko. Kategoria honetan bi proiektu saritu dira.

Gainera, ekintzailtzarekin lotutako GRAL, MAL eta doktorego-tesiak saritzeko kategorian hiru proiektu saritu dira.

INIZIA 2023 sarien edizio honetan, campuseko unibertsitate-komunitateko 11 proiektuk hartu dute parte.

*5.1.4 Araban ekintzailletza sustatzen duten erakunde eta instituzioekin lankidetzan aritzea (Álava Emprende, "Zure ideiak balio du" sarien bidez), eta eskaintzen dituzten zerbitzuak zabaltzea ikasleen eta irakasle-ikertzaileen artean.*

Araba Ekintzailearen XXII. edizioan parte hartu dugu, ekimen ekintzaileentzako sarien ebaluazio-batzordeko kide gisa eta "Zure ideiak balio du" lehiaketari babesa emanez.

*5.1.5 "Terraforming" izeneko CERN IdeaSquare Workshopa antolatzea BIC Arabarekin eta Ikerketa Nuklearrerako Europako Zentroarekin (CERN) lankidetzan.*

Azaroan, aste batez, UPV/EHUko Arabako campuseko hainbat titulaziotako 12 ikaslek CERNen (Conseil Européen pour la Recherche Nucléaire) "Design the Future" programan parte hartu dute, Genevan (Suitza), etorkizuneko teknologiei eta iraunkortasunari lotutako proiektu berritzaile bat egiteko helburuarekin. Gasteizko Ingeniaritza Eskolako, Farmazia Fakultateko, Letren Fakultateko, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko eta Ekonomia eta Enpresa Fakultateko ikasleek parte hartu dute.

## **5.2. I. Enplegarritasun Plana garatzea.**

*5.2.1 Campusetako enplegu-guneei laguntza ematea, bertan programatzen diren prestakuntza-, orientazio- eta bitartekaritza-ekintzak zabaldu, antolatu eta garatzeko, enplegarritasuna errazteko eta laneratzea sustatzeko.*

UPV/EHUko Praktika eta Enplegarritasun Zuzendaritzarekin eta UPV/EHUko Enplegu Guneekin lankidetzan, hainbat ekintza garatu dira Arabako campusean laneratzeari dagokionez, besteak beste:

- "Hezkuntzatik lan-mundurako trantsizioa" programa (Eusko Jaurlaritza) antolatzeko eta kudeatzeko lanetan parte hartu da, ikasleek praktikak egin ditzaten enpresa eta erakundeetan, non 600 ikaslek parte hartu duten (Arabako campuseko 107 ikaslek).

- XV. Erasmus+ Epez ikasle egresatuentzako mugikortasun-programa. Programa horren bidez, UPV/EHUko 38 graduatuk (Arabako campuseko 5ek) prestakuntza-praktikak egin dituzte Europako enpresetan.
- "IkaslePraktikak" mugikortasun-programan hartu da parte. Horren bidez, UPV/EHUko gradu, master eta doktoregoko 61 ikaslek (4 Arabako campusekoak) praktikak egin dituzte Europako enpresa eta erakundeetan.
- Campuseko ikastegiei laguntza eman zaie borondatezko praktikak kudeatzeko eta GAUR-PRAKTIGES plataforma erabiltzeko. 2022-23 ikasturtean, 756 praktika egin dira campusean.

*5.2.2 Enplegu Gune 2023 (Vitoria-Gasteizko Enplegu Foroa) antolatzea, Gasteizko Udalaren Enplegu eta Garapen Ekonomiko Jasangarriko Sailarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan.*

Gasteizko Enplegu Gune Foroaren XIII. edizioa Europa Jauregian egin da maiatzaren 3an. Guztira 1.500 pertsona baino gehiago bertaratu dira, eta orotara 84 enpresak hartu dute parte, horietatik 56k standarekin. Gainera, 819 lanposturi dagozkien 245 lan-eskaintza kudeatu dira.

## 6. Kultura eta kirola

---

### 6.1. EHUkultura

*6.1.1 EHUkultura Araba programa definitzea eta garatzea, kultura-diziplina desberdinak kontuan hartuta: literatura-, zinema- eta musika-lehiaketak, kultura-ikastaroak, liburuen aurkezpenak, erakusketak, antzerkia eta musika-kontzertuak*

"Cortada" film laburren jaialdia ez egiteak 25 urteko ziklo oso emankor bati amaiera eman zion, non jaialdi hau film laburren industria filmikorako erreferente izan zen, ez bakarrik Araban, baita gure lurraldetik kanpo ere. Garai berri horrek, era berean, irismen ertain eta luzeko plangintza estrategiko bat beharko luke, hurrengo urteetan oinarriak ezarriko lituzkeena. Ildo horretan,

kontzertuen dinamika berreskuratu du zuzendaritza honek, atzerakada nabarmena jasan zuena pandemiagatik eta baliabideak mugatu zirelako. Hori izango da zuzendaritza honen kultur jardueraren ardatzetako bat, Arabako campusa hirian erreferente bihurtzeko helburuarekin. Ikasturte honetan zehar, musika-emanaldiak asteazkenetan egin dira, eta honako ekitaldi hauek egin dira. Guztiek arrakasta handia izan dute bertaratzean; izan ere 720 lagun inguru izan dira guztira (180 pertsona ekitaldiko, batez bestean), kontuan hartuta segurtasun-arrazoiengatik unibertsitate-pabiloiak edukiera mugatua duela (220 lagunekoa).

- Anari: 2022ko abendua
- EHUTERPEren Gabonetako Kontzertua: 2022ko abendua
- Lukiek: 2023ko apirila
- Olaia Inziarte: 2023ko maiatza

Beste apustu estrategiko nagusia arte eszenikoei lotutakoa da. Ildo horretan, hiru jarduera gauzatu dira ikasturte honetan, guztira 250 bat lagun bildu dituztenak:

- *Belarriprest* obraren aurkezpena eta Arabako emakume sortzaileek arte eszenikoetan duten paperari buruzko mahai-ingurua. Ekitaldi hau Zurrumbilo euskal arte eszeniko garaikideen jaialdiarekin burutu da.
- Poetak maiatzean: KRELIA kolektiboaren eta UPV/EHUko ikasleen eskutik, hitz-errezitaldi poetikoa.
- *Zarzuela on air 2.0* ikuskizuna, Esperientziaren Gelekin batera.

Erakusketei dagokienez, guztira lau erakusketa egin dira, eta 200 pertsona inguru bertaratu dira; batez bestean, 50 lagun baino gehiago izan dira erakusketotan.

#### *6.1.2 Lankidetzaren sustatzea eta, hala badagokio, hiriko eta lurraldeko kultur eragileekin hitzarmenak sinatzea.*

Vitoria-Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolarekin lankidetzaren hitzarmena egiten jarraitu da, arte-diziplinak antolatu, sustatu eta zabaltzeko. Oraingo honetan, Arabako campusa izan zen "Amazonia eta erauzketa-jarduerek herri indigenetan duten eragina" jardunaldien eta Amalurzonia erakusketaren egoitza.

*6.1.3 UPV/EHUko elkarteen jarduerak sustatzea eta elkarte berriak eratzea, EHUkulturako organigramari atxikitzeko.*

Ikasturte honetan ez da kultur elkarte berririk sortu, baina lehendik daudenekin lankidetzan ari gara. Horien artean, honako hauek nabarmendu behar dira aktiboenen artean: IRAGARRI elkarte, EHUTERPE unibertsitate-abetesbartzaren elkarte, eta Aula Universitaria de Investigación Teatral (AUIT) kultur elkarte.

*6.1.4 Campusean unibertsitate-hedakuntzako jarduerak sustatzea (kongresuak, mintegiak, tailerrak, ikastaroak eta jardunaldiak), laguntza-deialdiaren bidez.*

Ikasturte honi dagokion unibertsitate-hedakuntzako deialdian 41 laguntza eman dira campusean kongresuak, mintegiak, ikastaroak eta kultura-jarduerak antolatzeko. Jarduera horien batez besteko laguntza 610 €-koa izan da (handiena 1.255 €-koa izan da, eta txikiena, aldiz, 126 €-koa), eta guztira 3.666 pertsona izan dira jarduerotan.

Amaitzeko, azpimarratzekoa da EHUkultura programan, orotara, 4.836 lagunek hartu dutela parte.

## **6.2. EHUkirola**

*6.2.1. Campus osasungarria eta iraunkorra programa garatzea.*

2022ko irailaren 19an, *Welcome Day* jardunaldian parte hartu dugu lehenengo aldiz, kirol-jarduerak antolatuz; jardunaldi horretan ongietorria eman zaie Arabako campuseko mugikortasun-ikasleei. Guztira, 26 ikaslek hartu dute parte.

Urriaren 6an, Kirolaren Eguna eta Boluntariotzaren Azoka antolatu dira Batekin agentziarekin elkarlanean campuseko oinezkoen gunean, eta 509 pertsonak parte hartu dute. Kirolaren Europako Astearen testuinguruan kokatuta, sedentarismoari eta gizentasunari aurre egiteko Europako Batzordearen ekimena izan da. 2022ko edizio honetan, Gazteen Europako Urtean, herritarren artean jarduera fisikoan eta elikadura-ohitura onetan oinarritutako bizitza

osasungarria sustatzea izan da helburua. Halaber, jardunaldi honen bidez, ikasturtean zehar EHUkirolaren programak aurkeztu dira.

Arabako campuseko jarduera fisikorako lizitatutako programa UPV/EHUren eta Gasteizko Udalaren instalazioetan garatu da. Hauek izan dira programatutako jarduerak: pilates, ibilketa nordikoa, GAP, yoga, zumba, etab.

Gainera, pandemia-egoeran sortu ziren izaera telematikoko ikastaroak mantendu dira, Arabako campuseko unibertsitate-komunitate osoaren praktika fisikoa eta osasuna sustatzeko: #mendierronka, #zuenerronka eta #gymvirtual. Hala ere, #zuenerronka programa 2023-24 ikasturtean ez eskaintzea erabaki da, azken bi ikasturteetan izan duen parte-hartze apala dela eta. Edonola ere, egokitzat jo da #mendierronka eta #gymvirtual ekimenak eskaintzen jarraitzea, eragiten duten kostua ahalik eta gehien doitzen saiaturaz. Honako taula honetan ikus daitezke parte-hartzeari buruzko datu laburtuak:

Jarduera	Antolatzailea	Partaide kopurua
Pilates, yoga, GAP, ibilketa nordikoa..	Arabako Campuseko EHUkirola	183
Mendi erronka, zuen erronka	Arabako Campuseko EHUkirola	49
Gym Birtuala	EHUkirola	124
<b>Guztira</b>		<b>356</b>

Ikasturte honetan inkesta bat egin da estreinako kirol-jardueren erabiltzaileen artean, eskainitako jarduerak baloratzeko eta hurrengo ekitaldietan eskaintza hori hobetu ahal izateko. Programan parte hartu duten 183 lagunetatik 59k erantzun diote inkestari, eta haien gogobetetze maila orokorra 5etik 4,4koa izan da. Halaber, erantzun dutenen % 87k jarduera hauetan parte hartzea gomendatuko liekete beste pertsona batzuei.

Bukatzeko, aipatzekoa da lehen urratsak egin direla 2022-23 ikasturte honetan Campus Osasungarria eta Iraunkorra ekimena abiarazteko. Hartara, Arabako Campuseko Euskararen, Ikasleen eta Mugikortasunaren arloko zuzendaria eta Kultura eta Kirolen arlokoa Osasuna Sustatzen duten Unibertsitateen II.

Biltzarrera joan dira. Biltzarra Burgosen egin da, azaroaren 2tik 4ra, eta bertan ahozko komunikazio bat aurkeztu dute, "Jarduera fisiko osasungarria sustatzea UPV/EHUko Arabako campusean: buruargitasuna pandemia-garaian" izenburuduna. Campus Osasungarria eta Iraunkorra ekimenari dagokionez, 2022-23 ikasturtean zehar egungo egoeraren diagnostikoa egin da, baita lehen zirriborro bat ere, eta 2023-24 ikasturteko jarduera-plana finkatu da.

### *6.2.2. Hiriko eta lurraldeko kirol-entitate eta -erakundeekin lankidetzaz sustatzea eta horrela badagokio hitzarmenak sinatzea.*

Errektoreordetzak harreman irmoa du Vitoria-Gasteizko Udalarekin kirolaren arloan, eta ikasturte honetan aurrerapausoak eman dira hura zabaldu ahal izateko. EHUkirola programak bere kabuz antolatu ezin dituen hainbat jarduera eskaintzeko helburuarekin, Gasteizko Udaleko Kirol Zerbitzuarekin sinatutako akordio baten bidez, "Kirol Bidean" eta "Jarduera Nautikoak" udal-ekimeneko programetan esku hartu du, eta, orotara, 90 ikaslek hartu dute parte ekimen honetan.

Arabako Foru Aldundiarekin harremanak berraktibatzea falta da; izan ere, aurreko zuzendariak hasi zituen harremanak, baina hauteskunde-aldia dela eta, 2023-24 ikasturtean ekingo diegu berriz.

### *6.2.3. Unibertsitateko kirol-txapelketak: Arabako campusean bakarkako zein taldeko kirolen lehiaketak antolatzea, eta campus artekoetan eta Euskadi eta Estatu mailakoetan parte hartzea.*

Campuseko kirol-lehiaketetan berriro hasi da jendea parte hartzen, eta nabarmen egin du gora parte-hartzeak gainera. Arabako Campuseko Txapelketa kirol-modalitate gehiagorekin programatu da. Nolanahi ere, Arabako Campuseko Txapelketa da parte-hartze handiena duen programa, campuseko gainerako programa fisiko eta kirol-programen aldean. Era berean, aurreko ikasturteekin alderatuta, emakumeen parte-hartzeak gora egin du banakako zein taldeko kirol-modalitateetan. Campuseko Txapelketak ibilbide bat du geroago, eta sailkatutako pertsonen UPV/EHUko Campus arteko



Txapelketan, Euskadiko Unibertsitate Txapelketan eta Espainiako Unibertsitate Txapelketan parte hartzen dute.

Azpirarratzekoa da 2023ko Euskadiko Unibertsitate Txapelketa UPV/EHUk antolatu duela, Arabako campusak, hain zuzen ere. Horrela, zuzendaritzak txapelketa hori kudeatu eta antolatu du; kirol-jarduerak Hezkuntza eta Kirol Fakultateko zenbait kirol-instalaziotan eta Gasteizko Udalak utzitako beste batzuetan egin dira. Guztira, 356 ikaslek hartu dute parte, Mondragon U., Deustuko U. eta UPV/EHU ordezkatzuz (Arabako campuseko 77 ikaslek esku hartu dute txapelketa honetan).

Bestalde, aipatutakoez gain, nazioarteko FISU lehiaketak ere badaude; horietan 2 ikaslek hartu dute parte, iraupen-eskiko eta eski alpinoko modalitateetan. Azken modalitate horri dagokionez, Farmazia Fakultateko ikasle batek domina batzuk lortu ditu, horien artean urrezko bat. Taula honetan, parte-hartzeari buruzko datuak laburbiltzen dira:

Jarduera	Antolatzailea	Partaide kopurua
Arabako Campuseko txapelketa 22-23	Arabako Campuseko EHUkirola	1134
Inter Campus Txapelketa 2023	Gipuzkoako Campuseko EHUkirola	168
Euskadiko Txapelketa 2023	Eusko Jaurlaritza eta Arabako Campuseko EHUkirola	356
Zabalki, Nazioarteko Pilota Txapelketa	Université de Pau et des Pays de l'Adour	2
Espainiako Txapelketa 2023	CSD (Zaragoza eta Gaztela eta Leon)	43
Online Xake Txapelketa	Bizkaiko Xake Federazioa	21
FISU Munduko Txapelketa 2023	FISU: eski alpinoa eta iraupen-eskia (AEB)	2
<b>Guztira</b>		<b>1726</b>

6.2.4. *Kirol-prestakuntza eta -formazioaren inguruko jarduerak garatzea: kirol-eskolak (errugbia, pilota, boleibola, tenisa...), hitzaldiak eta zinema-emanaldiak, errendimendu handiko kirolarien tutoretza, Joko Garbia ekimena, eta Emakumea eta Kirola arloko jarduerak besteak beste.*

Arabako campuseko EHUkirolak antolatuta eta kudeatuta, beste erakunde batzuekin lankidetzan, kirol-eskolak eta kirol-zentroekin egindako hitzarmenen barruko jarduerak gauzatu dira. Kirol-eskoletan errugbia, boleibola, tenisa eta euskal pilota modalitateak garatu dira. Hitzarmenei dagokienez, kirol-sektoreko 30 erakunde edo enpresarekin sinatu dira, eta horrek aukera eman digu Arabako unibertsitate-komunitateari mota askotako jarduera eta zerbitzu ugari eskaintzeko. Hauek dira erregistratutako datuak:

Jarduera	Antolatzailea	Partaide kopurua
Itunpeko Gimnasio eta Kirol Zentroak	Arabako Campuseko EHUkirola	470
Kirol Eskolak: errugbia	Arabako Campuseko EHUkirola	16
Kirol Eskolak: tenisa	Arabako Campuseko EHUkirola	12
Kirol Eskolak: boleibola	Arabako Campuseko EHUkirola	41
Kirol Eskolak: pilota	Arabako Campuseko EHUkirola	6
<b>Guztira</b>		<b>545</b>

Hainbat erakunde eta entitaterekin batera lan egin da, hala nola Estadio Fundazioarekin, solasaldiak, hitzaldiak eta zineforumeko saioak eskaini ahal izateko jarduera fisikoaren kulturarekin, osasunarekin, kirolarekin, iraunkortasunarekin, desgaitasunarekin, kirol-psikologiarekin eta abarrekin lotutako hainbat gairi buruz. Ikasturte honetan 35 parte-hartzaile izan dira (pertsona gehiagok parte hartu dute, baina erregistratu gabe).

EMMOAren (Euskal Mendizaletasunaren Museoa), Eusko Jaurlaritzako Larrialdietako Zuzendaritzarekin eta Euskal Mendizale Federazioarekin batera, Unibertsitatea Mendian Gora ekimenaren bigarren edizioan hitzaldi batzuk eta

autobabesari eta mendiko segurtasunari buruzko ikastaro bat antolatu dira, 19 lagunen parte-hartzearekin.

Unibertsitate-komunitateak herri-lasterketetan parte hartzeari dagokionez, 13 pertsonak parte hartu dute Vital Fundazioak antolaturiko Enpresen Lasterketan, eta 9 pertsonak hartu dute parte La Blanca Klubak antolatutako Arabako Herri Lasterketen Zirkuituan.

Arabako campuseko goi-mailako eta errendimendu handiko unibertsitate-kirolarien tutoretza-planari dagokionez, 63 akreditazio eman zaizkie eskatzaileei. Otsailaren 15ean antolatu da lehen aldiz UPV/EHUn Arabako Campuseko Tutoretza Planean akreditatutako ikasleak aitortzeko ekitaldia. Ekitaldi honen helburua bikoitza izan da: batetik, ikasle hauen errealitatea xehetasun handiagoz ezagutzea eta, bestetik, UPV/EHUren konpromisoa maila akademikoan indartzea. Ekitaldira 25 unibertsitate-kirolari hurbildu dira.

2023ko irailaren 21era arte, 468 ikasleri izapidetu zaie EHUkirola Araba programako kirol-jardueretan parte hartzeagatiko hautazko kredituak aitortzeko ziurtagiria (23/09/30era arte dago irekita epea).

Amaitzeko, azpimarratu behar da EHUkirola programan, guztira, 3.331 lagunek hartu dutela parte.